



Komuneko papera

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.
- HIZKUNTZA.
- ARTE HEZKUNTZA

HELBURUAK

- Behatzea eta datuak bildu eta sailkatzea.
- Kontsumo-ohiturak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea.
- Gastua zuzentzeko proposamenak egitea.

KOMUNeko PAPERa, funtsean, aurpegia, eskuak eta ipurdia garbitu eta sikatzeko erabiltzen dugu, baina ikasgelan ere erabili ohi dugu: zenbat erroilu astean?, eta hilean?, eta urtean?

Ikastetxean pasean

Zenbat komun daude ikastetxean? Zeinetan gastatzen dira erroilu gehien? Nork ipintzen ditu erroilu berriak komunetan? Zenbat ipini behar dira egunero?

Kontsumoa kalkulatu

Komuneko paperak errazago mozten laguntzen duten lerro ziztatuak dauzka, paper zerrenda orritxotan banatzen dutenak. Kontsumoa kalkulatzeko zeregin erraza da, paketeetan erroiluaren luzera adierazita dagoelako, bai metrotan, bai orritxotan. Papera erabili baino lehen, aldi bakoitzean gastatzen ditugun orritxoak zenbatu egin ditzakegu eta, orritxoak neurtuta, erabilaldi bakoitzean zenbat metro gastatzen dugun kalkulatu dugu.

Era horretan, ikasgelan inkesta egiten badugu, erraz kalkula daitezke komunera joateko batez besteko maiztasuna eta, pertsonako, ikasgelako eta eguneko batez beste erabiltzen dugun papera. Gero, zifra hori ikastetxeko gelen kopuruarekin eta asteko, hileko eta urteko egun kopuruarekin biderkatuko dugu, erabiltzen dugun paper kantitatea arin-arin hazten dela konturatzeko. Egindako kalkuluak egiaztatzeko, ikastetxearen garbiketa egiten duen enpresak emandako informazioarekin alderatu ahal ditugu.

Tona bat paper egiteko, 1.500 kg zur (2,1 hektarea lursail) behar direla kontuan hartuta, zakarrontzira edo komunetik behera botatzen dugun paper higienikoa ekoizteko, zenbateko zuhaitz-azalera behar den kalkulatu ahal dugu.

